



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



**Alkarbidek – Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak– koordinatuta,
BEHARSAREA.net beste 18 udalerritara zabaldu da**

**BEHARSAREA.NET ERABILGARRI BIZKAIKO BESTE
18 UDALERRITAN**

**Bizkaiko beste 7 udalerri eta 2 mankomunitatek badute euskarazko lana
bideratzeko BEHARSAREA.net web gunea**

Euskaraz egiten duten tabernari, dendari, ume zaintzaile eta bestelako lanen eskaera gero eta handiagoa da gure herrietan. Eskaera horri erantzuteko sortu zen 2011n beharsarea.net Getxon, Getxoko Euskara Zerbitzuak eta Egizu elkarteak sustatuta. Iaz, 28 udalerri batu zitzaizkion ekimenari eta aurten beste 7 udalerri eta 2 mankomunitate batu zaizkio Getxoko Beharsarea zenari. Guztira, 56 udalerrrik dute erabilgarri Beharsarea tresna.

Hasierako orrian parte hartzen duten herri eta mankomunitate guztiak daude batuta. Bertan, Euskal Herriko mapa batean Bizkaia dago nabarmenduta eta gainean sakatzuz gero, parte hartzen duten herri eta mankomunitateen izenak ikusi ahal izango ditugu nahi duguna hautatzeko. Gainera, eskuinaldean argitaratu diren azken eskaintza eta eskaeren zerrenda dago ikusgai.

Beharsarea euskarazko lana bideratzeko interneteko ataria da, doakoa eta euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna erraz eta eraginkorra. Erabiltzaileek bi baldintza baino ez dituzte bete behar: batzuek lan baldintza duinak eskaintzea eta besteek lana euskaraz egitea.

Lanak kategoriatan sailkatuta daude, baina lan mota guztiak bideratzeko balio du Beharsareak. Ildo horretan, lan partzialak zein lan profesionalak eskaini eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez.

Euskaraz lana egiteko jendea aurkitu behar baduzu edota euskalduna bazara eta lana bilatu nahi baduzu, orain bide erraz eta zuzena duzu interneten: www.beharsarea.net

Sustatzaileak

Balmaseda • Bilbo • Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa • Enkarterriko Mankomunitatea • Erandio • Etxebarri • Getxo • Igorre • Leioa • Lemoa.

Aurten gehitutakoak: Abanto Zierbena • Amorebieta-Etxano • Arrankudiaga-Zollo/Arakaldo • Mungia • Orozko • Ugao-Miraballes • Uribe Butroe Mankomunitatea • Uribe Kostako Mankomunitatea.

